


Nork: [Urola Kostako Hitza](#) -Eka 12, 2018

'MAITATU ZURE EGUNAK' LIBURUA AUKEZTUKO DU PAKO ARISTIK HILAREN 19AN

Aurkezpen ekitaldia Donostiako Udal Liburutegiko sotoan izango da. Erein argitaletxearen eskutik kaleratu du poesia liburua Aristik.



Pako Aristi. (Erein argitaletxea)

Pako Aristi (Urrestilla, 1963) bere azken lana labetik ateratzeko pronto dago. Hilaren 19an, asteartea, aurkeztuko du *Maitatu zure egunak* poesia liburua Donostiako Udal Liburutegiko sotoan, 12:00etan hasita. Erein argitaletxearen eskutik kaleratu du liburua Aristik.

Hona hemen *Maitatu zure egunak* liburuaren sinopsia:

"Harridura izan zen lehenengo, munduak eskaintzen duen ikuskizunaren aurrean. Gogoeta hurrena, bizitza ulertu ote litekeen, edo ez. Eta poesia etorri zen azkenik, mikroskopia bat bezala, gauzen alderdi txikiak jasoz agian osotasun bat erdietsiko duen itxaropenarekin. Jakintsuak esan zuen bezala, gauza gutxi behar dira bizitzeko: osasuna, ardo kopa bat ilunabarrean, lagun bat ondoan. Eta poesia, gaineratuko genuke. Bizitza ulertzen bakarrik ez, gozatzen ere laguntzen duelako. Hartu liburua, gorde patrikan, eta abiatu zaitez bidean.



Maitatu zure egunak:
laster desagertuko dira.
Maitatu zure orduak, minutuak,
ze ruak eta neguak.
Zu asko ohartu gabe,
iragaten dira,
pentsamenduetan galdurik

zabiltzan bitartean".

Maitatu zure egunak liburua eskuragarri dago Erein argitaletxearen webgunean, 14 euroren trukean.

Idazle urrestildarrak poesia ez ezik, saiakera landu izan du (*Euskal Kantagintza Berria*), nobelagintza (*Kcappo*, *Irene*, *Krisalida*), ipuingintza (*Auto-stopeko ipuinak*) eta haur literatura. Besteak beste, honako liburu hauek idatzi

Webgune honek cookie-ak erabiltzen ditu zure nabigazioa errazteko, publizitatea erakusteko eta analisi estatistikoak egiteko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, hauen erabilera onartzen duzula ulertuko dugu.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Cookie Politika](#)

[Onartu](#)



6.000 EUROKO LAGUNTZA EMANGO DIO ZARAUTZKO UDALAK SALBAMIENTO MARITIMO HUMANORI



Lotutakoak

ETIKETAK

ATALAK

EGILEAK



Pako Aristik 'Maitatu zure egunak'...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Eka 19, 2018

[Azpeitia](#)



HARA! Pako Aristi, Mikel Markez eta geh...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Ots 5, 2018

[Azpeitia](#)



Joldo Aldalurren gutuna:



MAITATU ZURE EGUNAK PAKO ARISTI



Miaketa baten ondorioa den poesia lana ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - maiatza 19, 2016

Azpeitia

Ez dago iruzkinik

UTZI IRUZKIN BAT

Izena *

Email *

Website

POST COMMENT

IKUSIENAK

AZKENAK

IRAKURRIENAK

IRUZKINAK



Oñatzen eta Urrestillan ez ezik, Azpeit ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Eka 20, 2018

Azpeitia



6.000 euroko laguntza emango dio Zarauzk ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Eka 20, 2018

Gizartea



Ro musika talde berriak bere lehen sing ...

Nork: [Urola Kostako Hitza](#) - Eka 20, 2018

Azkoitia

© Urola Kostako Hedabideak, S.L.

Araba kalea 25, 20800 - ZARAUTZ - Tel.: 943 890 017 - Posta Elektronikoa: urolakosta@hitza.eus Perez Arregi plaza 1 behea, 20730 - AZPEITIA - Tel.: 943 813 841 - Faxe 943 150 358



[Urola Kostako Hitza](#)

[Cookie Politika](#) | [Pribatutasun Politika](#) | [Lege Oharra](#)

WEBGUNE HONEK BAT EGITEN DU [CREATIVE COMMONS](#) ERABILERA LIZENTZIAREKIN.